

Ezjakintasuna eta austeritatea

Warren Mosler:

Austeritatea da ezjakintasunaren krisi honetan guztiok adostu duten gauza bakarra¹.

1. Ez dago inongo B planik. Odola kaleetan?

Mosler-en iritziz², Europak daukan emaitza haxe litzateke: odola kaleetan azaltzea.

Izan ere, EBZ-ren fondoak eratzeak martxan jarraitzen duen bitartean, dudazkoa izan arren, azpiko gaia austeritatea da.

Ez dago inongo B planik.

Dagoena zergak altxatzea eta gastuak moztea da, nahiz eta praktika horiek lan egiten dute maila handiagoko defizitak sortzeko.

Beraz, solbentziaren eta fondo eratzearen afera konponduko dela dirudien arren, bizkortze laguntzak ezin du luze iraun, fondoak eratzea baldintzatuta segitzen duen heinean: martxan dagoen austeritateak eta hazkunde negatiboak baldintzaturik, hain zuzen ere.

Beste aldetik, badirudi austeritateak ez duela soilik iraungo, baizik eta areagotuko dela, nahiz eta eurogunea dagoeneko sarturik egon atzeraldian.

Hortaz, Mosler-en aburuz, ez dago inolako aukerarik EBZ-k fondoak eratuko dituela eta, denbora berean, susperraldi baterako behar diren defizit handiagoak agintzea.

Kasu horretan, austeritatea bukatuko duen gauza bakarra odola kaleetan agertzea litzateke, kaosa eta gobernuan aldaketa bat pizteko beste kopuruan.

2. Nahiko argi

Bill Mitchell-ek dioenez³, Europa eskari agregatuaren eskasia pairatzen ari da eta puntu horri heldu behar dio gastu publikoa areagotuz. Gobernuek gastatzeko daukaten ahalmena gehiago murrizteak egoera okertuko du.

Laster ospatuko den EBko goi bileran Alemaniak eta Frantziak proposaturiko baldintzen bidez batasun fiskal bat onartzen bada, orduan euroguneko arazoari aurka ez egiteko beste erakustaldi baten aurrean egongo ginateke.

3. EBko itun berria

¹ Ikus <http://moslereconomics.com/2011/12/03/dutch-pm-mark-rutte-comments/>.

² Ikus <http://moslereconomics.com/2011/12/02/dc-takeaway/>. Halaber, ikus <http://neweconomicperspectives.blogspot.com/2011/12/there-will-be-blood.html>.

³ Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=17169>.

Alemaniak eta Frantziak biharko eta etziko goi bileraren atarian serioski uste dute krisia sortu dutela defizit oso altuek eta gairidituta izango dela eta soilik gairid daitekeela defizit horiek murriztuz. Beraz, haien ustez, EBZ-ren fondoak eratzeak ez du ezer konponduko ez badu oso garrantzitsua den helburu nagusia, hots, defizit murrizketa alboratzen⁴.

Baina abenduko goi bilera horrek ez du ezer konponduko. EBko herrialdeek orain bi arazo izango dituzte: solbentzia afera bat zeren EBZ-ren laguntzarik gabe ezin baitute beren buruari fondoak hornitu; eta ekonomia txar bat, orain gero eta gehiago txartuz doana, hazkunde negatiboak eta langabeziaren areagotzeak baieztatzen duten moduan.

Goi bilera hartako dauden aukera guztiek ekonomia txar bat are txarrago bilakatuko dute. Mahai gairiko aukera guztiek defizit handiagoak edukitzera eramango dute. Ondorio biek arazoak okertuko dituzte, eta oraingo historia berriak erakutsi duen moduan, biek austeritate handiagoko eskariak bultzatuko dituzte⁵.

Zorte on.

⁴ Ikus <http://moslereconomics.com/2011/12/05/france-germany-to-propose-new-eu-treaty/>.

⁵ Ikus <http://moslereconomics.com/2011/12/06/why-the-eu-wont-fix-anything-this-weekend/>.